

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Isidro Ugarte Ortuoste*

*Durango,  
Bizkaia  
(1924-2015)*

Aurkibidea



## Biografia



1924ko uztailearen 2an jaio zen [San Faustoko Munitxen](#)an. 1934an [Tabirako Aranatorre](#)ra "Andalatorre" joan ziren bizitzera eta bertan bizi izan zen etxea bota zuten arte. Ama Izurtzakoa Ortuzarrekoa zen, gerran erre zuten etxea, eta aita Muruetakoa (Abadiño). Arreba gazteago bat du Isidrok. Eskola sasoian Durangora joan zen, gaur egun kontserbatorioa dagoen lekura; baina Tabirara joan zirenean Izurtzako eskolara joan zen; beranduago, maisu-maistra batzuen etxeko klase partikularretara; gerra sasoian, mojen partikularrera, Oruen etxean; eta, beharrea zebilela, iluntzetan, Luis Mendia delineanteagaz marrazketa ikasten aritu zen klase partikularretan planoak-eta ikasteko. Abadiño-beazkoako Eustakia Mendibe Belarregaz ezkondu zen. 15 urte gaz hasita, igeltsero lanetan aritutakoa da. Elkarrizketa garaian, Eubako Orue egoitzan bizi zen.

## Zintak

### DUR-004

- **Proiektua:** Durangoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-01-05
- **Iraupena:** 108 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

## Pasarteak

### 1. Amaren jaiotetxea milizianoek erre zuten

- **Erref:** DUR-004/002
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:00:59. **Bukatu:** 00:02:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Ondasunen galera](#)

#### **Laburpena:**

Gerra sasoiaren bere amaren jaiotetxea, Izurtzako Ortuzar, milizianoek erre zuten. Alde egiteko esan zieten eta ez zuten kasurik egin, erre egin zieten etxea. Josteko makina baino ez zuten atera. Beste etxe batera joan ziren, eta etxe hura ere erre egin zuten.

#### **Transkripzioa**

- Etxie gerratan erre ein zan, Ortuzar. Han karabidixen aldatza badakizu nun dauen? karabidixe aldatza? eskumatara egon zan hori etxiori. Arkue luzero egon zan jausi barik, baia etxie gerratan gerratan erre zan. Baserririk haundixena zan, etxerik heundixena ha.

- Ta gerra denporan erre zan?

- Gerra denporan. Gerra denporan paseu zan han geuzat bat: eskapetako denporan, milizianuek urtetako esan otsien, ez abien urten ta horren represalidixan edo zerien sue emon otsien, ta milizianu gazte batek errukidixe hartu nire tia bati -hemeretzi urte-edo eukezan orduen- ta josteko makiñie bakarrik etara aban, beste dana etxie erre zan. Bai.

- Eta? erre otsien ta gero nora joan zan?

- Gero juen zien haren alaba baten etxera, han karabidixen aldatzien ezkerrekaldien etxie. Han be suerte txarra, bigarren etxie be erre ein zan. Ta gero bizitten juen zien, oin bizi die tokidixe karabidixe da, karabidixe zan ta aitte be nik igeltseru euki neban, aittek eta nik habilitau gontsen ba bizitzeko moduen karabidixori. Ta han bizi diez.

## **2. Tabira zinemako sarrera 3 txakur txiki**

- **Erref:** DUR-004/003
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:02:21. **Bukatu:** 00:03:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- [Aisia](#) » [Kultura](#) » [Zinema](#)
- [Aisia](#) » [Taberna giroa](#) » [Kafetegiak eta gozotegiak](#)
- [Aisia](#) » [Taberna giroa](#) » [Tabernak eta jatetxeak](#)

#### **Laburpena:**

<p>Bere izeko aurreko Domu Santu egunean hil zen 94 urte zituela. Izekorekin Tabirako zinemara joaten zen. Hiru txakur txiki balio zuen sarrerak 1933-1934an. Gaur egun justizia-jauregia dagoen tokian zegoen zinema; alboan, "el metro" taberna eta "Siglo XX" kafetegia zeuden.</p>

#### **Transkripzioa**

- Tia ointxe hil zan, ointxe Domu Santu Egunien hil zan.

- Zure tia?

- Tia. Larogeta hamalau urtegaz, azkenengo tia eukin dotena haidxe izen da. Haregaz bajatzen nitzen ni Durungora, umetan, ni gaztie ni bederatziz urte gaztiaue ha baiño, ta ni karabiñeru moduen ha nobidixun bille-edo Durungora, ta ziñera "Cine Tabira" zan, hiru txiki kostetan zan orduen denporan, "treinta y tres-treinta y cuatro"en zan hau. Bai.

- Zer zan Durango partien egon za ziñe bakarra?  
- Bai, oin juzgaue dauen tokidxen, hantxe egon zan ziñie. Han kantoien egon zan "Bar El metro", hori da "Bar El metro", ta juzgaue "Foto German"erantza egon zan kanto-kantoien "Foto German" ta bidxen bittartien "El siglo XX" kafeteridxe. Harek danak botata dauz, oin dauen juzgaue tokidxe.  
- Ezkurdixen.  
- Bai.

### 3. Iturriak

- **Erref:** DUR-004/006
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

#### Laburpena:

<p>Munitxa taberna famatua zen; bere anaiek ikaztegia zuten Kalebarrian. Bere aitapontekoa-eta Munitxaren tabernan batzen ziren domeka arratsaldetan. Atzeko iturrira ur bila joatearren, erreal bat ematen zion ordainetan; metal-ura oso estimatua zen. Iturria Mintegiren zerrategiaren atzeko partean zegoen. Taberna aurrean bi askadun garbitokia zegoen. Faustobeko etxearen alboan zegoen iturria, Abadi&ntilde;o eta Durango arteko mugan.</p>

### 4. Lanean txapel gorria erabili behar

- **Erref:** DUR-004/009
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:10:28. **Bukatu:** 00:12:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

#### Laburpena:

Bere aita igeltseroa zen. 1939an, 15 urterekin, bere aitarekin "Forjas de San Pedro"n hasi zen beharrean. Andaluziako "zonalde gorria" deituriko presoak kontratatzearen eguneko pezeta bateko laguntasuna jasotzen zuten. "El portico" drogerian burutu zituen lehenengo lanak. Txapel gorriarekin eta praka laburrekin ibiltzen ziren lanean; txapel gorria janztera derrigortzen zituzten. Kurutzian Komandantzia militarra zegoen, eta bertan nazionalak herriren bat hartzen zuten bakoitzean. batzarra egin eragiten zieten.

### 5. 'El Noticiario Bilbaino' irakurtzen zuen

- **Erref:** DUR-004/011
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:14:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

**Laburpena:**

<p>Zazpi urterekin,&nbsp;<em>El Noticiario Bilbaino</em> egunkaria irakurtzen zuen. Barrenkalean Elosu liburu saltzaile egoten zen, eta berak eta lagun batek "Elosu kakamosu" egiten zien burla. Umetatik irakurle amorratua izan da.</p>

**6. Egunero esnea saltzen**

- **Erref:** DUR-004/015
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:18:31. **Bukatu:** 00:20:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena:**

Porru asko saltzen zituzten. 4 behi zituzten eta bere ama egunero esnea saltzen jaisten zen esne-gurdi batekin; Gutik egin zien gurdi hori. Eguneroko bezeroak zituen eta 60 litrotik gora saltzen zituzten egunero. Kamioia etxerik etxe esnea batzen hasi zenean, partikularrari bikoitza kobratzen zitzaion.

**7. Porru oso onak zituzten, saridunak eta guzti**

- **Erref:** DUR-004/017
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:23:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena:**

Bere gurasoek San Faustoetako sariak irabazitakoak ziren; behiekin zein porruekin. Lehenengo behiagatik 750 pezeta ordaindu zituen bere aitak 1935ean. Behi horrek beragatik ordaindutakoa baino gehiago lortu zuen saritan. Porrua ona, luzea, izateko aitzurra ezin da edozelan erabili; zelan erabili behar den azaltzen du. Ez ziren plazara joaten, bezero finkoak zituzten eta zuzenean saltzen zieten. Madrileraino ere bidali zituzten behin.

**8. Bertoko erreketako arrainak, karramarroak...**

- **Erref:** DUR-004/019
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

**Laburpena:**

Oiloak, untxiak eta ahateak zituzten (erreka ondoan bizi zirelako zituzten ahateak). Bakailaoa beratzeko erreka sartzan zuten zaku barruan; zakua

karramarroz betetzen zen. Ezkailuak harrapatzea oso erraza zen, erretela botata bertara joaten ziren. Mañariko erreka ur hotza du, eta hori oso ona da; hori dela eta, ez zen loinarik egoten. Beste erreketan egoten ziren loinak. Santa Anatik gora ez zen barborik egoten. Bertoko karramarroak aurkitzeko erreka hasieratara joan behar dela dio. Zarboak sardexkarekin harrapatzen zituzten; harrien azpian ezkutatzen ziren. Ezkailuak sabel mingotsa du, zarboak ez.

## 9. Ola zaharra

- **Erref:** DUR-004/022
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:28:48. **Bukatu:** 00:31:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Erreminta-makinak

### Laburpena:

Beti bizi izan da ola ondoan. Ola eta bertako lanak zelakoak izaten ziren kontatzen du. Mendizabalen makinak hasi zirenean, utzi zioten han zartaginak egiteari. Lehenago burdindegi gauzak (balkoiak...) eta txapista lanak ere egiten zituzten. Argi barik, uraren indarrak funtzionatzen zuten makinek. Egurikatza erabiltzen zuten; tailer barrura zakuak zelan sartzen zituzten azaltzen du. Olatik errekaraino, tunela eginda zegoen gerrarako babesleku bezala.

## 10. Tabiratik errepide nagusirako bidea

- **Erref:** DUR-004/024
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:32:25. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

### Laburpena:

Lehenagoko errepide nagusia Laubidietatik Tabirara artekoa zen, eta Tabirako eliza ostetik Izurtzako irteerara heltzen zen. Gainerako errepideak geroagokoak dira. Bide horretan, Estankonaren burdindegiaren ondoan "Bakarrena" izeneko etxe bat zegoen: zegoen bakarra. Hurrengo etxea "Sator etxe" izan zen. Tabiratik errepide nagusira oinetakoak ez zikintzeko losa batzuk zeuden jarrita. Losa horien ondoan gurdi-bide bat zegoen; bonbardaketako hondakinekin betetakoa. apurka-apurka joan zen bide hori zabaltzen.

## 11. San Antonio Urkiolakoa

- **Erref:** DUR-004/030
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:42:09. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena:**

<p>San Antoniotako mezara jende asko joaten zen. Hiru gizon egoten ziren mezak hartzen. Abadeak dirua hartu eta iluntzean Otxandioko banketxera armatuta joaten zen. Parrokoak berak esan zion Urkiolako harria Otxandio aldetik ekarritakoa zela.</p>

**Transkripzioa**

- Urkiolan ni egonda nau, klaro albokuek zien, ta orduen mezak San Antoniouetan batzen zien, holankoxi jentie, ta batzen mezak batzen batzen egoten giñiezen hiru gizon, hamar terdi inguruen hamarretako ona ein ta gero han mezak batzen. Sei zaku, zakuetara dirue botaten zan, papelak, izena-eta, han ez euen denporarik izena hartzekorik, hango kontuek nok erungo ete ban, zemat meza juen zan ta zemat diru egon zan, parrokiek kotxien kargau, pistolie albuen ta Otxandixora jueten zan bankure edo kajara dirue erueten, San Antonio illuntzidxen, hori neuk ezetute deuket. Urkiolak dekoz botuen kapillie -zuk iguel entzunde eukingo dozu- han egon zien ezkerrekaldien, altarien ezkerrekaldien, kapilla bat, lokal haundi bat, ze han zuritten-eta ibiltzen nintzen-ta, albañel moduen, ta han egon egoten zien aparato zerak botuek-edo sartzen bazien edo ez bazien, barkuek miniaturan ipinitte, kotoiek orratzak buru zuridxegaz buru baltzaz, nobidxo rubidxue edo morenue izen deitten, horrek danak ezetute deukaz nik han. Ta hori harridxori han aurrien dauena, horrek parrokiek esan eusten niri Otxandixo alden batetik etorri ekarrittekue zala, ha bueltak-eta emoten jakozena-ta, harridxe.

**12. Domeka, egun sakratua**

- **Erref:** DUR-004/033
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:45:11. **Bukatu:** 00:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

**Laburpena:**

Lehen erlijioa derrigorrezko kontua zen. Karlisten leloa "Dios, fueros, patria y rey" zen, lehenengo jainkoa zuen haiek ere. Bizkaitarrek erregea kendu egin zutela dio. Domeka (igandea) elizarako eguna zen, gainerako lan guztiak alde batera uzten ziren.

**13. Lamiak eta sorginkeria kontuak**

- **Erref:** DUR-004/035
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:46:49. **Bukatu:** 00:49:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

<p>Lehen umeei beldurra emateko istorioak kontatzen ziren. Bere amamak

etxeko leihotik lamiak ikusten zirela esaten zien. Kontu horiek guztiak Eibarren arma-lantegiak zabaldu zirenean bukatu zirela dio; jendeak defendatzeko, etxean eskopetak izaten zituen-eta. Bere aitaitari entzuna zion, Urkiolatik behera zetorrela kate zaratak-edo entzun, eta etxera di-da batean etorri zela. Mañeritik harginak Madrilera joaten ziren lanera; eta lehenengo bizikleta Madrildik ekarritakoa zen, hura ere sorginkeria kontua zela esaten ei zuten. Txikitan sinesten zituzten kontu horiek.

## 14. Abadiñoko Jerbas

- **Erref:** DUR-004/036
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:49:52. **Bukatu:** 00:51:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

### Laburpena:

Jerbas Abadiñoko semea zen, eskalea-edo zen; alanbre batzuk izaten zituen eta atzazalekin haiek jotzen ibiltzen zen. Berarengana hurbildutakoan, "Aittu ein bikodu berbaz" (ulertu beharko gara berbaz) esaten zuen. Hil ondoren, bere oroitzapenez, Abadiñon bere irudia zuten globoak botatzen zituzten; irudia zeukan globoa aurkitzen zuen pertsonak bazkari bat irabazten zuen.

### Transkripzioa

- Ta Jerbas, nor zan Jerbas ba?

- Mañeri, Abadiñoko semie. Gizajue, ez euken nundik dirue... eskie moduen ibiltten zan. Ta euken holako ol zati bat az hiru-lau alanbre ipinitte ta atzazkal senduek eukitten bazen ta hareaz trin-trin-tron-tron- trin-trin-tron jotzen eban ta kalerik kale ibiltten zan ta haregana juten baziñen ta: "Zer Jerbas?" ta "aittu ein bikodu berbaz" kontestau eitten ban berak.

Abadiñoko kontuek danak jakitten ebazan hak, kaso askogaz berba eitten ban. Bai, hil zan. Ta gero haren zelebraziñuen, lehen be pentseten dot esan dotsutela, Abadiñoko herridexek globuek botaten eban Jerbasen figurie plastikuen eindde, ta haiziek nora erueten eban ta jun jausten zan, ha topetan ebanak eukitten ban pareja baten ekarteko Abadiñon kontuz Abadiñora egune pasetan bezkaridxe ta dana. Oin ez dakitz botako dabien, ezin neike esan hori. Lehen bai. Jerbas famosue zan.

## 15. Durangoko bonbardaketa I

- **Erref:** DUR-004/038
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:53:43. **Bukatu:** 00:57:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

1934eko urrian izandako Asturiasko altxamenduaz gogoratzen da. 1936ko irailaren 28an izan zen Durangoko lehen bonbardaketa. "El abuelo" izenez ezaguna zen hegazkin bat sarritan ibiltzen zen alde batetik bestera eraso egin

barik, baina egun hartan bost bonba bota zituen. Ezkurdiko frontoiko ezkerreko horma zulatu zuen eta hainbat jende hil zen. 1937ko martxoaren 28an, goizeko zortzietan izan zen lehen eraso. Bezperan, Andra Maria eliza hustu zuten, intendentzia militarra zegoen bertan. Hala ere, herritar asko hil ziren, baina intendentziakoak ez. Arratsalderako, Isidro Santi gurutzera joan zen. Ehiza-hegazkinak heldu zirenean, eraso gehien jaso zituen gunea tren-geltokia izan zen. Bere emaztea esnea saltzen etorri zen Durangora eta justu-justu libratu zen, astoa Kurutziagan utzi ostean. Astoak non lotzen ziren azaltzen du.</p>

## 16. Durangoko bonbardaketa III

- **Erref:** DUR-004/039
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:57:06. **Bukatu:** 00:58:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Soldadu talde handi bat fusilak lepoan hartuta ikusi zituela gogoratzen du, eta kanposantu ondoko etxe batean zegoen gizon bat hil zutela. Kanoi alemaniarrek, "Ocho con ocho" deiturikoak, Matienako (Abadiño) Gerediagako ermitaren kontra egon ziren; Mugarra aldera erasotzen zuten.

## 17. Eguen Zuri abestia

- **Erref:** DUR-004/041
- **Iraupena:** 0:00:10. **Hasi:** 01:01:56. **Bukatu:** 01:02:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

### Laburpena:

<p>Eguen Zuri Egunez abesten zuten abestia kantatzen du.</p>

#### Transkripzioa

Eguen zuri kantetan  
hemen egozuz atetan,  
emongo bazu emoizu  
bestelan "zoiez!" esaizu.

## 18. San Juanetako abestia

- **Erref:** DUR-004/043
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 01:02:15. **Bukatu:** 01:02:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

**Laburpena:**

<p>San Juan bezperan suaren inguruan dantzan eta saltoka zebiltzala abesten zuten abestia kantatzen du. Etxe bakoitzak bere sua egiten zuen.</p>

**Transkripzioa**

"San Juan, San Juan  
arraultza bi kolkuan,  
beste bi altzuan.

Sorgiñek eta lapurrek erre erre,  
Biba San Juan!"

-Hori sue ein, amak-eta erakutsi oskuen, ta beren ganetik salto ein ta. San Juanen bezperan horidxe kantuari eitten oskuen, hemen fogatak oin eitten dizenak? Horidxe, San Juan San Juan.

- Etxe ostien eitten zenduen?

- Kanpuen, ortuen, ortuen.

- Baia Tabirako jentie alkartuta?

- Etxekuek, etxe bakoitzi eitten zan fogatie bakarra, [...] seridxe egoten zan.

**19. Txapa (ekonomika)**

- **Erref:** DUR-004/047
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:04:40. **Bukatu:** 01:07:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

**Laburpena:**

<p>Beraien etxean txapa (ekonomika) 1933tik zuten. Zelako zen azaltzen du; bi tiro zituen eta bakoitzak bere funtzioa zuen. Galdara handi bat jartzen zuten gainean. Motozerra eduki aurretik eskuzerraz ebakitzen zituzten enborrak. Katu asko zituzten etxean eta arrain zatien bila joaten zen Durangora arrozarekin batera egosi eta katuei eta oiloei emateko.</p>

**20. 1936an Donostiara egindako bidaiari ikusi zuen itsasoa**

- **Erref:** DUR-004/050
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:09:34. **Bukatu:** 01:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena:**

1937an ikusi zuen lehenengo biderrez itsasontzi bat. Itsasoa oster, 1936an ikusi zuen lehenengoz; Izurtzako eskolatik Donostiara joan ziren "autobus Carbonero"n. Bidaiak ogerleko bat balio izan zuen. Aquariuma ikusi, Pasaia bisitatu eta Usurbilen sagardoa probatu zuten. Gerra hasi aurreko egunetan izan zen bidaiari hori, 1936ko uztail hasieran. Ibarruriko neska-mutilekin bete zuten autobusa.

## 21. Izurtzako eta Durangoko eskolan ibilitakoa

- **Erref:** DUR-004/051
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 01:11:34. **Bukatu:** 01:15:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

### Laburpena:

Izurtzako eskolara ume asko joaten ziren eskolara; neskak eta mutilak banatuta. Lehenengo kotxea Avilako maisuak izan zuen; "tiempo bi"ko motordun deskapotablea. Gerran nazionalistek kotxea konfiskatu zien. Maisu-maistra onak izan zituzten: Florentino Hidalgo eta Sebastian Torres. 5-6 lagun eskola partikularretara ere joaten ziren irakasleen etxera. Lehenengo Durangoko eskolara joan zen; Don Ramon maisua du akorduan, zigarro batekin beste bat pizten zuena. Tabirara bizitzen joan zirenean hasi ziren Izurtzako eskolan. Gerra ostean, Orue txaleteko partikularretara joan zen; mojek ematen zituzten eskolak. Antzinako komunak zeuden bertan, eta zelakoak ziren kontatzen du. Ganaduentzako askak ere bertan zituzten.

## 22. Luis Mendiaren marrazketa-eskolak

- **Erref:** DUR-004/053
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 01:16:18. **Bukatu:** 01:17:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

### Laburpena:

<p>Luis Mendiarengana joaten zen marrazketa ikastera; Komentu kaleko eta Kalebarri arteko kantoian zuen lokala. Mendizabalenerako delineatzailea zen Luis Mendia. Isidro eraikuntza-lanetan aritzeko planoak-eta ikastera joaten zen; lanean zebilela iluntzetan joaten zen.</p>

## 23. Garia erosi behar entregatzeko

- **Erref:** DUR-004/058
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:27:50. **Bukatu:** 01:29:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

### Laburpena:

Sekula ez dute garirik erein. Hori dela eta, abastotik kupoa entregatu beharreko agindua heldu zenean, entregatzeko garia erosi egin behar izan zuten. Lapikotarren almazenera eraman behar izaten zen. Baserrian ez zuten goserik pasatu. Oliorik ez zutenean, esnegaina erabiltzen zuten koipe bezala.

## 24. Osaba estraperlista

- **Erref:** DUR-004/060
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:31:10. **Bukatu:** 01:32:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

### Laburpena:

<p>Ma&ntilde;ariko bere osaba bat gerra ostean estraperloan hasi zen larruak ekartzen; ostean, gariarekin ere hasi zen. Behin kamioian gariarekin Gasteiztik zetorrela, aguazil batek gelditzeko eskatu zien, baina aguazilak ez zuen lortu bere helburua.</p>

## 25. Don felix Serrano medikua; ezkontzerakoan abadeari oiloa

- **Erref:** DUR-004/063
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:34:21. **Bukatu:** 01:35:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

### Laburpena:

<p>Bera jaio zenean Don Felix Serranok artatu zituen, eta horixe bera zen beraien medikua. Ezkontzerakoan bere emazteak abadeari oilo eder bat eraman zion. 1956an ezkondu zen Abadi&ntilde;on.</p>

### Transkripzioa

- Ni jaidxon nitzenien atendidu oskuen don Felix Serrano. Horrek euki eban zerien, hortxe, Mariok zapateridxie euki eban ba? han kantoi-kantoi, handik Andra Mari alderantza lelengoko portala, bigarren pisuen euki eban. Ni jaidxo nintzen haidxek atendidu eutson nire amari. Harrezkero, gure medikue partikularmente ha izen da beti. Gero ba seguridade sozialetik toketan jakune.

- Bia han sasoi medikueri dirue emoten jakon edo jeneroa baserrikoa?

- Dirue, dirue, dirue.

- Beti?

- Bai. Oin, jenerue, jenerue ezkontzeko denporan baserrixetan porejenplo, ze gure andriek be eruan ban, oillue ederrena parrokueri ezkontzeko, oillue. Eskatu eitten otsuen. Oparidxe. Bai, bai.

- Karo abadieri be noizien behin zozer eroango otsazuen.

- Bai ba.

- Nun ezkondu ziñien?

- Abadiñon, Abadiñon. "Día uno de febrero del cincuenta y seis".

## 26. Motorzalea: Guzzia, Vespa...

- **Erref:** DUR-004/066
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:37:24. **Bukatu:** 01:39:59

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

**Laburpena:**

Ezkondu aurretik BI-1975 matrikuladun motorra zuen Isidro; 75 zentimetro kubikoko Guzzi bat zen. Sasoi hartan, ez zen jende askorik ibiltzen motorrez. Gerra aurretik, bizikleta izatea ere asko zela dio. 14.000 pezeta ordaindu zituen bigarren eskuko motorragatik. Guzzia izan aurretik Zipri Agirrezabali erosi zion motor bat, 38 zentimetro kubikoko JB bat. Kurutziagako Gutin tailerrean, armazioa egin zien; atzean 5 abiadura-aldagailu eta katalinan bi jarri zien, hamar abiadurako motorra izateko. Guzzi motorra eta gero, bi Vespa izan zituen.

## 27. Etxearen errentan diruaz gain kapoia

- **Erref:** DUR-004/072
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:43:16. **Bukatu:** 01:44:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

**Laburpena:**

<p>Etxeen alokairuak Domu Santu bueltan ordaintzen ziren. Ugazabari diruaz gain kapoia ematen zitzaion; jendea kapoi bila Bilbora joaten zen.</p>

**Transkripzioa**

- Errentak zelan pagetan zenduezan lehen, etxietako errentak?  
- Bueno guk errentarik ez dogu pagau, bueno, han bizi giñenien, San Fauston, bai. Hango konturik ezin neike esan, ze umie nintzen. Baia hamen normalmenten, Domu Santuek izeten zien errentie pagetako, ta asko Bilbora jueten zien errentiaz diruten ta gero kapoiek, usadixue izeten zan, kapoiek kapau ta agotik jaten emon ta ipintten zien kapoiek, obligaziñue eukitten abien batzuk, danak ez baia batzuk bai.  
- Dirurik ez?  
- Dirue be bai, dirue be bai. Ta kapoiek Gabonetarako-edo horidxe, kapoiek be bai. [...] seridxo zelan tratue eindde euki abien, hataidxe.

## 28. Berorika, hika eta zuka

- **Erref:** DUR-004/073
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:44:08. **Bukatu:** 01:47:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

<p>Abadeei berorikaz hitz egin behar izaten zitzaien; hikaz hitz egitea ez zaio ondo iruditzen. Hika hurbileko jendearekin berba egiteko modua dela dio.

Medikuari ere berorikaz hitz egiten zitzaion. Etxean zukaz hitz egiten zuten. Lagun artean zuka edo hika egiterakoan, adina hartzen dute kontuan, gazteagoek nagusiagoei zuka egiten diete. Bere emaztearen etxean neba-arrebek hika egiten zuten.</p>

### **Transkripzioa**

- Abadietakaz-eta zuek, zuek abadieri berba zelan eitten otsazuen? gugaz egotie lez eitten otsazuen berba?
- Orduen ez, orduen ez. Orduen "berori", "zu" nekez, "berori".
- Derrigor?
- Derrigor-edo, haidxe usadixue-edo. "Berori" ya kategoridxe. Oin "hi" be iguel. Hemen euzuek, lagunek: "e hi!" abadieri esaten otsie. Bai, bai, bai. Kuadrillan lagunek ibilli ezkerro, jaten ta edaten-ta kuadrillan: "hi, Fulano!".
- Ta zuk txarto ikusten dozu hori?
- Nik ez dot ondo ikusten. Gitxien-gitxien "zu", gitxien-gitxien "zu".
- Abadieri bakarrik?
- Danari be pertsonari konfidxantza handidxen bat ez bada "hi" "zu" hobeto ikusten dot. "Hi" ya da aparte "compañerismo" moduen zer "intimos, como intimos", "hi", "hi".
- Ta medikuari?
- "Berori". Orduen bai, orduen bai e! titulue eukitten abien.
- Ta beste danari "zu" edo "hi"?
- "Zu", bai.
- Ta etxien arrebiegaz-eta?
- Arrebie "zu" bai.
- "Hi" ez?
- Gurien ez e! ez, gurien ez. Beste etxe batzuten "hi", ta guk lagun artien, nik iñoiz biherrien be bai, ni baiño gaztiaue, urte bi-edo gaztiaue-edo ta hak ni niri "hi" ta nik berari be "hi", ta beste lagun bat peon modure ibiltten giñun, ha gu baiño gaztetxue ta harek bidxek eurek bata besteri "hi" ta harek peoiek niri "zu" eitten osten. Ta horrek bestiek, Emilio euken izena beste albañelak, esan otsan hareri bestieri: "zegaittik ez otsek esaten horrerri "hi"?" hak ez, hak "zu" beti niri.
- Errespeto kontua orduan?
- Bai, etxurie etxurie, bai.
- Ta andriari zelan eitten otsezun?
- "Zu". Bai, bai, bai, bai, bai. "Hi" sekule be ez e!
- Ta gizonan artien bakarrik "hi" edo andrari be bai?
- Andrak euren artien be bai, bai.
- Baia gizonak andrari?
- Nik neuk ez, beste batzuk ez dakit, ezin neike esan.
- Zure andriek aiztiak eukezan?
- Arrebie, nik arrebie.
- Ta zure andriek?
- Nori?
- Zure andriek ez eukan nabe-arrebak-edo?
- Eurek "hi", eurek bai, eurek bai, eurek "hi". Harek "zu" bata bestieri sekule be ez, "hi". Bai, bai. Neba-arrebak, eurek zien bost neska ta mutil bat, ta "hi".
- Aldia euen Durango izan edo Abadiño izan, igual? aldia "zu" edo "hi" eitteko?
- Ba ezin neike esan horretan, ezin neike esan.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com